



Zierbena (Bizkaia), 2004ko abenduaren 27a

Prensa-oharra

Bahía de Bizkaia Electricidad-ek ingurumenari buruzko ISO 14001 ziurtagiria lortu du

Bahía de Bizkaia Electricidad (BBE) 800 MW-ko ziklo konbinatuko zentrala da eta bere eginkizun nagusia energia elektrikoa sortzea da. Duela gutxi AENORen ingurumenari buruzko UNE-EN ISO 14001:1996 ziurtagiria lortu du.

Bahía de Bizkaia Electricidad-ek lau kide ditu: BP, Energiaren Euskal Erakundea (EEE), Iberdrola eta Repsol YPF, horietako bakoitzak %25eko partaidetza izanik. 2003ko abuztuan hasi zen BBE lanean merkataritza-arloan eta urtebete eskas behar izan du Espainiako Estatuko ziklo konbinatuko lehen ekoizle independentea bihurtzeko eta Ingurumenaren Kudeaketari buruzko UNE-EN ISO 14001:1996 ziurtagiria lortzeko.

Prozesu hori oso garrantzitsua izan da beste enpresa batzuetan, baina bereziki interesgarria da BBErentzat, energia elektrikoa sortzeko egiten duen lana ingurumenari buruzko kudeaketaren barruan kokatzen baitu, Ingurumena errespetatzeko konpromiso tinkoa duten enpresekin bat eginik. Ziurtagiri hori lortzeko enpresak alde aurretik ezarritako baldintza eta oinarri batzuk bete behar ditu, denboran zehar etengabeko hobekuntza erdietsi ahal izateko, baina aldi berean, kanpora begira ere argi erakutsi behar du hori dena, AENOR enpresa egiaztatzailak egiten dituen ikuskaritzen bitartez. Aipatu ikuskaritzak 2004ko azaroaren 15ean eta 16an egin ziren.

Ingurumenaren Kudeaketari buruzko UNE-En ISO 14001:1996 araua betetzeak esan nahi du enpresak etengabe begiratzen dituela bere jardueraren alderdi guztiak, ingurumenarekiko erabateko errespetuz lan egiten duela elektrizitate-sorkuntzaren amaierako produktua lortzeko, aplikagarri diren arau guztiak betetzen dituela eta bere jarduera guztietan ingurumena babesteko politikarik eraginkorrena erabiltzen duela, langileen, hornitzaileen eta oro har gizartearen konfiantza bermatuz eta areagotuz.

Bahía de Bizkaia Electricidad-ek hornidura elektriko iraunkorra sustatzen du eta euskal ekonomiaren eraginkortasuna hobetzen laguntzen duen funtsezko eragilea da: gainera, hornidura-aukerak ugaritzen ditu Arku Atlantikoaren barruan. Bahía de Bizkaia osatzen duten lau kideak oso ezagunak dira energiaren sektorean. BP munduko konpainiarik handienetakoa da jarduera energetiko eta kimikoei dagokienez: EEE Eusko Jaurlaritzak energiaren inguruko politika sustatzeko duen erakunde publikoa da: Iberdrola, berriz, Espainiako bi konpainia elektriko garrantzitsuenetako bat da, eta Repsol YPF Espainiako petrolio-sozietate nagusia da.

Argibide gehiago:

José Ramón Epelde

jrepelde@eve.es

jrepelde@bbe-bbg.com

Tel. 94.435.56.00

Tel. 94.636.60.20

Móvil: 609.41.38.37

www.bahiasdebizkaia.com